

SEGURTASUNA

TXARTELEKIN, ONLINE EROSI

Segurtasuna gure txarteletan eta merkataritza elektronikoan.

SEGURTASUNA TXARTELETAN

Laboral Kutxak zure txartelen eta eragiketen segurtasunaz kezkatzen da. Hori dela eta, zenbait neurri jartzen ditugu zure eskura, eragiketa seguruak egin ditzazun, bai saltokietan zuzenean erosten duzunean, bai Internet bidez ordainketak egiten dituzunean.

Laboral Kutxaren neurriak, zure txartelak babesteko

1. Erosketak saltokietan

Laboral Kutxaren txartelek segurtasun-elementu bat dute: txipa. Faltsifikazioaren eta iruzurrezko erabileraren kontra babesten du txip horrek, txartelaren datuak eta eragiketa segurtasunez baliozkotzen baititu. Gainera, txartela saltoki batean erabiltzen baduzu, zure gako pertsonala (PINa) sartu beharko duzu. Horri esker, txartelaren titularra egiaztatzea seguruagoa da.

2. Erosketak Interneten

Erosketa elektronikoko seguruak: : Laboral Kutxaren txartel guztietarako balio duen zerbitzua, Interneten bidez erosketak egitekoa eta Verified by Visa sistemari atxikitako saltokietan txartelaren bidez ordaintzekoa.

3. Sakelako alerten zerbitzua

Laboral Kutxak mugikorreko mezularitza zerbitzua du, bezeroei SMS bidez beren kontuetako eta txarteletako mugimendu garrantzitsu guztien berri emateko. Bezeroak mezuak telefono mugikorrean jasotzen ditu. Egin ez duzun eragiketa baten berri ematen dizun SMS bat jasotzen baduzu, deitu berehala telefono hauetako batera:

- TELEBANKA

- SERVIRED

TF: 901 333 444

TF: 900 200 128

4. Eragiketen monitorizazioa

Laboral Kutxan, txartelen bidez ordaindutako eragiketak monitorizatzen ditugu. Horrenbestez, jarduera susmagarririk hautematen badugu, zurekin harremanetan jartzen gara zure bulegoaren bitartez (telefono-dei edo mezu elektronikoz), egin dituzun eragiketak egiaztatzeko. Txartela iruzurrez erabili dela egiaztatuz gero, txartela blokeatuko genuke, eragiketa gehiago egon ez dadin.

5. Iruzurrezko erabileraren aurkako aseguruia

Laboral Kutxaren txartelek lapurtu edo galduz gero iruzurrezko erabilera estaltzen duen doako aseguruia dute. Estaldura: salaketaren aurreko 72 orduetatik aurrera. 50 euroko frankizia.

6. Txartelaren blokeoa

Txartela galdu baduzu edo lapurtu badizute, telefono hauetako batera deitu behar duzu berehala:

- TELEBANKA:

Tel.: 901 333 444

Atzerritik: 34943779909

(Asteleheneratik ostiralera 08:00etatik 22:00etara eta larunbatetan 08:00etatik 15:00etara)

- SERVIRED:

Tel.: 900 200 128

Atzerritik 34 900 200 128

(24 orduetan)

Gorde telefono-zenbaki horiek zure sakelako telefonoko kontaktuetan, zure txartelaren galera edo lapurreta lehenbailehen jakinarazi ahal izateko.

7. Erreklamazioak, intzidentziarik edo iruzurrezko erabilerarik badago

Zure txartela iruzurrez erabili badute, erreklamazio bat jar dezakezu zure bulegoan edo Telebankan. Horretarako, ekintza eta dokumentu hauek eskatuko dizkizugu:

- Txartela blokeatzea.

- Salaketa egitea.

- Gutun sinatu batean gertatutakoa azaltzea.

- Iruzurrez egindako eragiketen zerrenda

Orobat, jarraitu gomendio hauei, zure txartelen eta eragiketen segurtasuna indartzeko:

Laboral Kutxaren gomendioak, zure txartelak babesteko

- Zure gako pertsonala -> (PIN: Personal Identification Number):
 - Ikasi buruz zure gako pertsonala eta ez esan inori. Pertsonala eta besterenezina da.
 - Ez idatzi inon, eta ez gorde diru-zorroan edo txartelaren ondoan. Horri esker, diru-zorroa edo txartela galtzen baduzu, inork ezin izango du erabili.
 - Ez esan inoiz inori zure gako pertsonala.
 - Ez bidali zure gako pertsonala posta elektronikoz, inondik inora.
 - Ziurtatu ez dela erraz asma daitekeen zenbaki bat. Ziurtatu ez dela zurekin zuzenean lotutako zenbaki bat: NAN zenbakia, autoaren matrikula, jaiotze-data, etab.
 - PIN zenbakia erosketetan edo kutxazainetan sartzean, estali teklatua, inork ikusi ez dezan.
 - Noizean behin, aldatu. Laboral Kutxaren edozein bulegotan edo kutxazainetan egin dezakezu.

- Etxean txartel berria jasotzen duzunean:
 - Aktibatu iritsi bezain laster.
 - Sinatu.

- Kutxazaineen:
 - Estali zure gako sekretua eskuarekin.
 - Transakzioa amaitzean, jaso txartela lehenik, eta gero, dirua.
 - Inolako intzidentziarik baduzu, jarri harremanetan bulegoko langileekin edo deitu TELEBANKAren 901 333 444 telefono-zenbakira.

- Saltokietan:
 - Ez galdu txartela bistatik.
 - Eskatu erosketa-egiaztagiraren kopia eta egiaztatu zordunketarekin, zure kontu korrontean edo kreditu-txartelaren laburpenean.

- Interneten:
 - Erabili txartela zure konfiantzazkoak diren saltokietan.
 - Ez eman txartelaren zenbakia, erosketa jakin bat egiteko beharrezkoa ez bada.
 - Egiaztatu informazioa bidaltzeko enkriptaketa-sistema bat erabiltzen dela beti. Horretarako, begiratu nabigatzailean giltzarrapo hori bat dagoen ala ez.

- Bidaia bat egin aurretik:
 - Egiaztatu txartelaren iraungipen-data eta kreditu-muga.
 - Eraman txartel bat baino gehiago, galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo hondatzen bada beste bat izateko.

- Kreditu-txartela baduzu, egokitu muga zure beharren arabera.

- Aztertu zure kontuak aldian-aldian eta egiaztatu transakzio susmagarririk ez dagoela.

- Ez eman zure kreditu-txartelaren zenbakia edo informazio pertsonala telefonoz, baldin eta zuk ez baduzu deitu transakzio bat egiteko asmoz.
- Txartela galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo baimenik gabe erabiltzen badute, jakinarazi berehala, eta txartela blokeatuko dugu, iruzurrezko erabilerak saihesteko.

SEGURTASUNA MERKATARITZA ELEKTRONIKOAN

Merkataritza elektronikoa segurua: Laboral Kutxak Verified by Visa ordaintza seguruko sistemari hartzen du parte. Ordaintzerakoan, zerbitzu horri atxikitako web-denda batek webgune segurua batera birbideratuko zaitu; hartan, SMS bidez jasotako kodea sartu beharko duzu. Horrenbestez, erosketari hori ordaintzeko baino ez duzu txartela erabiliko, eta gainera, saltzaileak ziur jakingo du txartelaren legezko erabiltzailea zarela.

